

BERRIAK ETA GAI LABURRAK

GURE ILLAK

JOSE AGERRE SANTESTEBAN (1889-1962)

Iruñean il da Jose Agerre Santesteban jauna 1962 urriaren 19-an. Urte bereko abenduaren 29-an beteko zituen 73 urte.

Euskaltzaindia sortu zanetik euskaltzain izendatua izan zan.

Iruñean jaio zan 1889 urtean. Iruñeako Seminarioan sartu zan bere es-tudioak egitera, baiña beste bide batzuetatik korrituko zuen denboraren bu-ruan. Bordel eta Sevilla-n bizi izan zan eta azkenez ogetaamabost bat urtetan Iruñean.

Aspaldiko urteetatik egunkarietan maiz argitaratu izan ditu bere artiku-luak. Gerra baiño leen "La Voz de Navarra" Iruñeako egunkariaren zuzendaria izan zan. Euskal poesia ere landu zuen. "Gurbindo" izengoitia ere erabili izan du bere lanetan. Bere lanak batez ere egunkari eta aldizkarietan sakabanaturik aurkitu ditezke.

Gerra baiño leen "Euskeraren Adiskideak" alkartadeko buruzagia izan zan.

Izkuntzak irakasten aritzen zan eta bazekizkian euskera eta gaztelaniaz gaiñera, frantsesa, inglesa, alemana, italianoa, latiña eta grekoa, azkenengo bi auek Seminarioko estudioak egin zituenetik.

Viana Printzipearen Alkartadeko Euskeraren Aldeko Saillak Nafarroan az-ken denbora auetan egin dituen aurren esamiña eta bertsolari saioen lanetan parte artu du azkenengo egunetararte. Etxalar-en izan zan euskal esamiñak egiten urriaren 10-ean azkenengo aldiz eta itz batzuek zuzendu zizkien aurrari.

Nafarroan oso maitatua zan alderdi guztietan bere ontasun eta xalotasu-nagatik eta estimazio aunditan zeukaten bere ideatakoak etziran nafarrak ere.

Euskera ain maite baitzuen euskeraz Jaunari otoitz egiñik il zan.

Biblioteka ugaria utzi du, euskal gaietan Iruñeako aberatsenetakoa. Emaz-te eta bi seme alabakin bizi zan.